

Euskal AEn internauten % 56,5ek sare sozialetan parte hartzen dute eta enpresen % 55,2k enpresa-helburuetarako erabiltzen dituzte

Pertsonen % 55,1ek erosketaren bat egin dute Internetez eta establezimenduen % 28,0k merkataritza elektronikoa egin du


Euskal AEko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ekipamenduek etengabe egin dute gora, urtez urte, Eustatek egindako 2022ko Informazioaren Gizartearen Panoramaren arabera. Ekipamendu guztiek ez dute berdin eta intentsitate berarekin egin.

Etxeko eremuan hura osatzen duten pertsonen artean IKTen banaketa desberdina da, adina eta jarduerarekiko harremana bezalako aldagaiak kontuan hartuta. Enpresen kasuan, desberdintasunak honako hauen arabera dira, nagusiki: dituen enplegatuen kopurua, enpresa zer lurralde historikotan dagoen eta jardura zer sektore ekonomikotan garatzen duen.

Etxearen eta hura osatzen duten pertsonen eremua

Konektibitateari lotutako ekipamendu teknologikoak Euskal AEko etxe gehienetan daude eta goranzko joera erakusten dute. EAEko etxeen % 86,9k Internetarako konexioa dute (ia guztiak banda zabalekoak dira), eta, 2012az geroztik, ehuneko 29,1 puntu igo da. Gutxienez 16 eta 74 urte bitarteko pertsona bat duten familien artean, Interneteko konexioa % 94,8k dute.

Euskal AEko familiak, etxebizitzaren IKT ekipamenduen arabera



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Familiak

Hala, etxeen % 74,7k dute ordenagailua –2012an baino ehuneko 12,1 puntu gehiago–. Goranzko joera hori nabarmenagoa da eramangarritasun handiko teknologietan, hala nola ordenagailu eramangarriaren kasuan, etxeen % 59,3an baitago; beraz, azken 10 urteotan, igoera handixeagoa izan da (ehuneko 16 puntu). Bestalde, ia etxe guztiek (% 97,4) dute telefono mugikorren bat; alegia, duela 10 urte baino ehuneko 6,3 puntu gehiago.

Etxe horietan bizi diren 15 urteko eta gehiagoko biztanleen ikuspuntutik, ehunekoak handixeagoak dira: % 91,3k Interneterako sarbidea dute etxean (2012an baino ehuneko 24,5 puntu gehiago), % 81,3k ordenagailu baterako sarbidea (9,7 puntu gehiago) eta % 98,5ek telefono mugikor baterako sarbidea (3,6 puntu gehiago).

Etxeko ekipamenduen artean, aipatzekoa da 2022an Euskal AEko biztanleen erdiek baino gehiagok (% 57,8) ordainpeko telebistarako sarbidea dutela. Etxeetako komunikazioari lotutako ekipamendu hori nabarmen hazten ari da; izan ere, duela 10 urte biztanleriaren % 15,7k baino ez zuen.

Interneteko erabiltzaile diren 15 urtekoak eta gehiagokoak (azken 3 hilotan) adin horietako euskal herritarren % 86,3 dira; ehuneko hori ehuneko 19,5 puntu areagotu da 10 urtean (2012tik % 66,8).

Jarduera asko egin daitezke Internet bidez. Motibo partikularrek eragindakoen artean, ohikoenak komunikaziora eta informazioa bilatzera bideratutakoak dira. Internet erabiltzen duten ia euskal herritar guztiak WhatsApp bidez edo berehalako mezularitzako beste aplikazio batzuen bidez komunikatu dira (% 97,3), eta neurri txikiagoan erabili dute posta elektronikoa (% 83,1) edo irakurri dituzte albisteak, egunkariak edo aldizkariak (% 71,4) eta bilatu dute ondasunei edo zerbitzuei buruzko informazioa (% 71,8). 15 urteko eta gehiagoko Interneteko erabiltzaileen % 56,5ek sare sozialetan parte hartzen dute, eta, 15-24 urtekoen artean, % 90,8k.

Era berean, kontsumora eta etxeko ekonomiara bideratutako jarduerak Internet bidez egindako eragiketa askoren arduradun dira. Interneteko erabiltzaileen % 70,2k erabili dute bide hori 2022an banku-jardueretarako. Etxetik kanpo egiten diren aisiarekin eta kulturarekin lotutako jarduerari dagokionez, erabiltzaileen % 49,5ek turismoarekin lotutako ostatu- edo bidaia-erreserbak egin dituzte, 2021ean baino 32,9 puntu gehiago. 2022ko emaitzak 1,6 puntuan gainditzen du 2020ko COVID-19aren aurreko emaitza (% 47,9 lehen hiruhilekoan).

Administrazio elektronikoak aukera ematen du administrazioarekin izapideak bide telematikoaren bidez egiteko. Eremu horretan, Interneteko erabiltzaileen % 56,3k inprimakiak beteta bidali dizkiote administrazioari Internet bidez, % 49k informazioa bildu du eta % 44,8k inprimaki ofizialak lortu ditu bide horretatik.

Azkenik, merkataritza elektronikoari dagokionez, azken 3 hilabeteotan Internet bidez ondasun edo zerbitzuren bat eskuratu duten pertsonen ehunekoa % 55,1 izan da; alegia, 898.600 pertsona. Zifra hori 15 urteko eta gehiagoko Euskal AEko biztanleria osoaren % 47,6 da; hau da, ia hirukoiztu egin da Internet bidez erosketak egin dituzten pertsonen kopurua, aurreko 10 urteekin alderatuta (2,6 aldiz), eta 2017an baino % 40,1 gehiago (bost urte lehenago). Kolektibo horrek arropa, oinetakoak eta osagarriak, etxerako ondasunak, ostatuak, kultura-ekitaldietarako sarrerak, zaintza pertsonalak eta higiene-zaintzak, garraioa eta kirol-materiala erostearen alde egiten du nagusiki.

Enpresa-eremua

Euskal AEko enpresetan, argi ikus daiteke garapen-erritmo positiboa 2001-2022 aldian; ekipamendu teknologiko guztiek egin dute gora. Gaur egun, Interneterako sarbide-maila % 93,5ekoa da, eta Euskal AEko enpresen % 54,3k du web-orria; beraz, erkaketa eginez gero, postu altuetan daude EB-27ko herrialdeen testuinguruan.

Aipatzekoa da urtez urte murriztu egiten direla enpresa handien eta enpresa txikien arteko distantziak ekipamendu teknologikoaren mailan. Joera bikoitzaren ondorioz gertatzen da hori: alde batetik, enpresa handiak ekipamendu-maila gorenera iristen ari dira teknologia nagusietan, eta, bestetik, langile gutxiago dituzten enpresek gero eta ekipamendu teknologiko handiagoa dute.

Era berean, enpresetan ekipamendu teknologikoak erabiltzen dituzten enplegatuen proportzioak ere aurrera egin du pixkanaka. 2001-2022 aldian, enpresan ordenagailua zutenen ehunekoa % 46,4 izatetik % 73,3 izatera igaro da, ehuneko 27 puntuko igoera egon da. Interneterako sarbidea % 23,4koa zen 2001ean, eta 2022an enplegatuen % 70,6ra iritsi da. Posta elektronikoa dutenak % 25,8 izatetik % 69,8 izatera igo dira hogeita bat urte horietan, eta bi ekipamenduek ehuneko 40 puntutik gorako igoerak izan dituzte.


Hala ere, ekipamenduez bestela, teknologia horiek erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoek ez dute alde handirik erakusten enpresaren tamaina kontuan hartzen denean.

Administrazio Publikoari dagokionez, esan behar da Euskal AEko ia establezimendu publiko guztiek dituztela IKT ekipamenduak 2022an. Hala, % 99,8k ordenagailua eta Interneteko konexioa eta posta elektronikoa % 99,7k dituzte. Telefono mugikorra, bestalde, finkapen gutxien duen IKT ekipamendua bada ere, establezimendu publikoen % 86,2k dute.

Informazioaren gizartearen alderdi garrantzitsu bat enpresek administrazioarekin duten harremana da. Hala, Interneterako sarbidea duten Euskal AEko enpresen % 94,6k izapide elektronikoak egin dituzte administrazio publikoarekin 2022an. Eremu horretako aurrerapena ukaezina da; izan ere, 2001. eta 2022. urteen arteko aldian, % 22,5etik 2022an % 94,6ra igaro dira izapideak bitarteko horren bidez egiten dituzten establezimenduak. Ehunekoa are handiagoa da 10 langileko edo gehiagoko enpresak soilik kontuan hartzen badira, 2022an tamaina horretako establezimenduen % 97,6ra iritsi baita, nahiz eta areagotzea txikiagoa izan, 2001ean % 43,9tik abiarazten baitziren.

Lehen sektorean errealitatea bestelakoa da. Hemen, 2022ko datuen arabera, IKTen ezarpen txikiagoa islatzen da, gainerako sektoreekin alderatuta, batez ere sektore horren atomizazioagatik –establezimenduen % 97,4k 9 enplegatu edo gutxiago dituzte–, eta jardueraren beraren berezitasunagatik. Talde horretan, arrantza-jarduera duten establezimenduek baino ez dituzte lortzen ekipamendu-ehuneko askoz ere handiagoak. Hala ere, datu horrek ez du eragin handirik sektore osoan; izan ere, nekazaritzako enpresak lehen sektoreko establezimendu guztien % 96,0 dira.

Euskal AEko enpresetako merkataritza elektronikoari dagokionez, berezitasunik esanguratsuena banaketa desberdina da, sistema horren bidezko erosketak edo salmentak diren kontuan hartuta.



2002an merkataritza elektronikoa egiten zuten establezimenduak % 4,4 izan ziren, % 3,6k erosketak egin zituzten eta establezimenduen % 1,3k salmentak. 2021ean, eskuragarri zegoen azkenean, merkataritza elektronikoa egiten zuten establezimenduen ehunekoa % 28,0koa izan zen, establezimenduen % 25,0ek hartu zuten parte erosketen aldetik, eta % 8,3k salmenten aldetik. Tamaina kontuan hartuz gero, 10 langile eta gehiagokoetan, merkataritza elektronikoak % 10,0etik % 35,3ra egin du aurrera 2002-2021 aldian.

Merkataritza elektronikoak Euskal AEn mugitzen dituen zenbateko ekonomikoen bilakaerari dagokionez, aztertutako aldian, 2002-2021 aldian, merkataritza elektroniko bidezko erosketen zifra 2002an 1.509,5 milioi eurokoa izatetik 2021ean 18.241,3 milioi eurokoa izatera igaro da. Salmenten kasuan, 2002an 2.834,0 milioi eurokoa zen zifra, eta, 2021ean, 24.224,9 milioi euroko erosketak egin ziren. Beraz, nahiz eta erosketa elektronikoak egiten dituzten enpresen ehunekoa sistema horren bidez salmentak egiten dituen baina handiagoa den, transferitu beharreko diru-kopuruak handiagoak dira salmenta elektronikoaren kasuan.

Azkenik, 4.0 Industria delakoan, enpresen eraldaketa digitalari erreferentzia egiten dionean, aztertzen diren bederatzi adierazleen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Sare sozialak enpresa-helburuetarako erabiltzea; establezimenduen % 55,2.
- Enpresaren jarduerarekin eta ekoizpen-prozesuekin lotutako aplikazioen erabilera (Zerbitzu Mugikorrak); establezimenduen % 33,5.
- Zerbitzu informatikoak hodeian (*Cloud Computing*); ostatu horregatik ordaintzen duten establezimenduen % 26,6.

Jarraian, % 10 eta % 20 bitartean, Zibersegurtasuneko Jarduerak, Gauzen Interneta eta *Big Data* Analisia daude. Azkenik, establezimenduen % 5etik behera, Adimen Artifiziala, Robotika eta 3D inprimagailuak daude.

Oharra: Informazioaren Gizartearen Panoramaren egitura 6 bloke handitan zehazten da: IKT ekipamenduak, ordenagailuaren erabilerak, Interneten erabilerak, administrazio elektronikoa (e-administrazioa), merkataritza elektronikoa eta 4.0 industria. Bloke horiek familien, herritarren, enpresen, administrazioaren eta landa-munduaren ikuspuntutik aztertzen dira. Gainera, lurralde historikoen, adinen, pertsonen jardueraren edo tamainaren arteko aldeak aztertzen dira, enplegatu kopuruaren arabera, eta Euskal AE ere nazioarteko testuinguruan kokatuz.

<https://eu.eustat.eus/informazioarengizartearenpanorama/2022/hasiera.html>

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62